# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2017ko maiatzaren 12a | 69. ZK.


**A U R K I B I D E A**


A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ETAren estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio haientzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen dira 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuko 27. xedapen gehigarria ken dezaten. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraiki dezan, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako hezkuntza-premiak batera beteko dituena. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela artxiba dadin Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak Kataluniako Parlamentuko Mahaiko bost kideren aurka abiarazitako kausa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Eguna dela-eta eginen diren ospakizunekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, lan-arriskuen prebentziorako deialdiari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (9. or.).

—Galdera, Baztan-Bidasoa/Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako Lanbide Heziketako Zentro Integratuari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (10. or.).
—Galdera, funtzionario publikoek edo eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeriazko gertakarien gaineko informazioa bilduko lukeen dokumentu-funts bat sortzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
—Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen Plan Zuzendari berriari buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (11. or.).
—Galdera, energia-politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko entitate publiko bat sortzeari eta Nafarroarako Energia-plana berrikusteari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (12. or.).
—Galdera, seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeriaren kasuei aurre egiteko eta horiek behar bezala artatzeko jarduketa-protokoloari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (13. or.).
—Galdera, Hezkuntza Departamentuaren efizientziari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (13. or.).
—Galdera, beka-deialdietan egindako aldaketei buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (14. or.).
—Galdera, irakasle-lanaren aitortza egiteko kanpaina bat egin beharrari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (14. or.).
—Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako baremoa bertan behera uzteari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (15. or.).
—Galdera, Ingelesez Ikasteko Programan irakasten duten irakasleen hizkuntza-mailari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (15. or.).
—Galdera, NUPen urte anitzeko finantzaketa-planari, NUPek Tuteran duen hezkuntza-eskaintzari eta Irakasle-ikasketen gradua ingelesez jartzeko aukerari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (16. or.).
—Galdera, aniztasunaren arretari, Lanbide Heziketari eta Fernando Remacha musika kontserbatorioaren finantzaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (16. or.).
—Galdera, eskola-aurreinskripzioko kanpainari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (17. or.).
—Galdera, hezkuntza-itunei buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (18. or.).
—Galdera, hezkuntzako lan-eskaintza publikoei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikaspostuen gaineko oraintsuko epaiei eta ikastetxeetako irakasleen kontratuen iraupenari nahiz bertaratzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (18. or.).
—Galdera, hezkuntza-kalitatea hobetzeko ituna berriro egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (19. or.).
—Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan asteko ingeles-orduen kopurua arautzen duen foru aginduari eta Programan sartzeko eta handik irteteko xedapenari buruzkoa. Alberto Catalán Higueras jaunak egin du (19. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (20. or.).
—Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (20. or.).
—Galdera, aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”. Osasun Batzordean izapidetzea (21. or.).
—Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa. Osasun Batzordean izapidetzea (21. or.).
—Galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko ekipoak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruzkoa. Osasun Batzordean izapidetzea (22. or.).
—Galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa. Osasun Batzordean izapidetzea (22. or.).
—Galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (23. or.).

- —Galdera, jakitekoa ea zenbateraino garatu eta bete den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (23. or.).
- —Galdera, emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- —Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko lau lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Akts zuzenketa (24. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2017ko ekainaren 30eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2017ko apirilaren 26ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ETAren estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio haientzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan.

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita ETAren estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio haientzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita ETAren estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio haientzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan.

Iragan martxoaren 17an jakin zen ETA erakunde terroristak apirilaren 8a baino lehenago jakinaraziko zuela non ezkutatzen zituen bere armak eta lehergailuak. Zalantzarik gabe positiboa den iragarpen horren ostean, ETAk adierazpen bat egin beharko luke terrorismoaren hamarkada hauetan zehar eragindako mina dela-eta bere nahigabea erakusteko eta 1977ko Amnistia Legea onetsi zenetik gaur arte parte hartu duen atentatu eta delitu guztiak zeharo argitzeko bere borondatea erakusteko. Izan ere, biktimek eta oro har gizarteak justiziarako daukaten eskubideak exigitzen du haiek pairatu zituzten krimenen arduradunak identifikatzea eta epaitzea.

Bestalde, iragan astean, Terrorismoaren Biktimen Memoriaren Zentroaren txosten batek –La estrategia del miedo. ETA y la espiral del silencio en el País Vasco, Francisco Llera eta Rafael Leonisio irakasleek egina– erakusten zuen nola iritzi politikoak eta identitate-sentimenduak adierazteko beldurrak hartu egin izan zuen, eta oraindik ere hartzen duen, euskal populazioaren zati handi bat –bereziki, baina ez bakarrik, nazionalista ez dena–, terrorismoaren eta ETAren aldekoek sortutako larderiaren ondorioz. Nafarroan ez dago izugiro horri buruzko azterlanik, baina argi dago egon egon dela eta zuzentzetik oso urrun dagoela. Gure gizartean oraindik ere pertsona gehiegi beldur dira –bereziki, herri zehatz batzuetan– beren identitatea eta beren ideiak adierazteko, sumatzen dutelako irainduak izan daitezkeela, sozialki isolatuak, diskriminatuak, estereotipatuak, ikusezin bihurtuak, eta abar.

Demokraziak exigitzen du identitate-sentimendu guztiekiko eta aukera politiko guztiekiko konfiantza, askatasun eta tolerantzia giro bat egon dadin (salbu eta intolerantzia sustatzen eta bizikidetasuna zapuztea bilatzen dutenekikoa); hartara, beharrezkoa da neurriak aztertu eta abian jartzea terrorismoaren ondorioak konpontzeko eta Nafarroa irekia eta bere aniztasun politiko, kultural, linguistiko eta identitarioa errespetatzen duena eraikitzea ahalbidetzeko.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten du ETAk eta Komando Autonomo Antikapitalistek nafar enpresaburuen eta profesionalen aurka egindako atentatuak, mehatxuak eta estortsioak direla-eta.

2. Espainiako Gobernua premiatzen du judizialki iker ditzan estortsioen egileak, bai eta “zerga iraultzailea” oker deitutakoaren ordainketa bideratzen lagundu zuten laguntzaile-sareak ere.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako unibertsitateekin elkarlanean dibulgazio-lan bat eta erakusketa bat egin ditzan, zeinetan, biktimen anonimotasuna zainduz, ikusaraziko baitira estortsioaren zifrak, mekanismoak, konplizitateak eta giza inpaktua nahiz inpaktu ekonomikoa.

4. Omenaldi- eta erreparazio-ekitaldi bat antolatzea onesten du, ETAk eta Komando Autonomo Antikapitalistek egindako atentatuak, mehatxuak eta estortsioak pairatu zituzten enpresaburu guztientzat. Halaber, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin lankidetzan, plaka bat jarriko du haren egoitzaren fatxadan, estortsioa pairatu duten enpresaburuen eta profesionalen omenez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

# Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen dira 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuko 27. xedapen gehigarria ken dezaten.

*IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen baitira 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuko 27. xedapen gehigarria ken dezaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ministroen Kontseiluak 2017ko martxoaren 31n onetsi zuen Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege-proiektua, zeina Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen 2017ko apirilaren 6an. Proiektu horretako 27. xedapen gehigarrian aipatzen da lan-kontratudunak sektore publikoan sartzeko murriztapena, halako moduan non eraso zuzena egiten baitzaie, langileen subrogazio-prozedurak direla-eta, Administrazio Publikoen –udal nahiz autonomia erkidego izan– kudeaketa publiko zuzenera itzularazteko prozesuei.

Neurri atzerakoi berri honek Espainiako Konstituzioko 140. artikuluan jasotzen den autonomia-printzipioa urratzen du: “Konstituzioak bermatzen du udalerrien autonomia. Nortasun juridiko osoa izanen dute udalerriek. Haiek gobernatzearen eta administratzearen arduraduna dagokion udala da, alkateak eta zinegotziek osatua. Zinegotziak, udalerriko auzotarrek aukeratuko dituzte, sufragio unibertsal, berdin, libre, zuzeneko eta isilpekoz, legeak ezarritako moduan. Alkatea, zinegotziek edo auzotarrek aukeratuko dute. Legeak arautuko du zein kasutan dagokion kontzeju irekiaren araubidea izatea”.

27. xedapen gehigarriak larriki eragozten ditu gaur egun enpresa eta entitate pribatuekiko kontratuen bidez kudeatutako titulartasun publikoko

zerbitzuak eta obrak zuzeneko kudeaketara itzularazteko prozesuak; izan ere, ezinezkoa da beren zerbitzuak esperientzia eta profesionaltasun frogatuarekin ematen dituzten langileak atxikitzea. Lehendik ezagutzen ziren oztopoei beste lege-oztopo bat gehitzen zaie hartara, eta jasangarritasunaren legearen ustezko zutabe batekin kontraesanean dago: zerbitzu publikoen ematearen efizientziarekin.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen ditu 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuko 27. xedapen gehigarria ken dezaten.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraiki dezan, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako hezkuntza-premiak batera beteko dituena.

*HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Alberto Catalán Higueras jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraiki dezan, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako hezkuntza-premiak batera beteko dituena. Mozioa 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu beharrezkoa dela artxiba dadin Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak Kataluniako Parlamentuko Mahaiko bost kideren aurka abiarazitako kausa.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da artxiba dadin Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak Kataluniako Parlamentuko Mahaiko bost kideren aurka subiranotasun-proposamenen eztabaida ahalbidetzeagatik abiarazitako kausa.

2. Nafarroako Parlamentuak printzipio demokratiko oinarrizkoenen aldeko bere konpromisoa adierazten du, eta uste du proposamen politikoen eztabaida ezin dela arrazoi izan Legebiltzar bateko Mahaiko kideen aurkako prozesu judizial bat abiarazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Kataluniako Parlamentuko Mahaiari helaraziko dio adierazpen instituzional hau”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Eguna dela-eta eginen diren ospakizunekin.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du Europan bakea eta aurrerabidea bermatze aldera Europar Batasunak egindako ekarpena, eta bat egiten du heldu den maiatzaren 9an Europaren Eguna dela-eta eginen diren ospakizunekin.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Europar Batasunaren bandera Parlamentuaren fatxadan eta gainerako aretoetan berriro paratzea, Europar Batasuneko kide izateak Nafarroari eta Espainiaren gainerakoari ematen dion balioa aintzatesteko”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Egunaren ospakizunarekin.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Europaren Egunaren ospakizunarekin, eta Europaren bandera bere fatxadan eta orain dela urtebete baino gehiago kendu zen gainerako aretoetan berriro paratzea erabaki du”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, lan-arriskuen prebentziorako deialdiari buruzkoa.

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, lan-arriskuen prebentziorako deialdiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroan beste edozein erkidegotan baino gehiago igo zen 2016an lan-istripuen kopurua. 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 850.000 euroko aurrekontu-lerro bat onetsi zen, “Lan-arriskuen prebentziorako proiektuak” izenekoa. Maiatzak lau ditu gaur, eta argitaratu gabe jarraitzen du proiektu horiek garatu ahal izateko deialdiak.

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi darabil deialdia atzeratzeko? Noiz argitaratuko du? Zer emaitza espero du izatea deialdi horrek? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Parlamentu honek onetsitakoari eta Nafarroako ia sindikatu guztiek eskatutakoari jarraikiz lan-istripuen aurkako talka-plan bat taxutzeko?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

# Galdera, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari buruzkoa.

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2016ko ekainean mozio bat onetsi zen, Espainiako Gobernua premiatzen zuena Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak nabarmen gehitu zitzan Nafarroako Foru Komunitatean, lanaren eta Gizarte Segurantzaren esparruko araudi osoa betetzen dela kontrolatzeko, eta, halaber, horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ugaritu zitzan.

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin du Espainiako Gobernuaren aitzinean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak Nafarroan giza baliabide eta baliabide material gehiago izan ditzan?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

---

# Galdera, Baztan-Bidasoa/Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako Lanbide Heziketako Zentro Integratuari buruzkoa.

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, Baztan-Bidasoa/Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako Lanbide Heziketako Zentro Integratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Esther Korres Bengoetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Urtebete pasa da Nafarroako Parlamentuak Baztan-Bidasoa/Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako Lanbide Heziketako Zentro Integratu berri bat eraikitzearen aldeko mozioa Osoko Bilkuran onartu zuenetik. Hori dela eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

– Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak proiektu hori aurrera eramateko?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

---

## Galdera, funtzionario publikoek edo eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeriazko gertakarien gaineko informazioa bilduko lukeen dokumentu-funts bat sortzeari buruzkoa.

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, funtzionario publikoek edo eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeriazko gertakarien gaineko informazioa bilduko lukeen dokumentu-funts bat sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetze parlamentarioko fasean 30.000 euroko zuzenketa bat onetsi zen “Biktimen arloko jarduketak” proiektuan, aurrekontu-partida berri bat sortzeko, zeinaren xedea baitzen funtzionario publikoek edo eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeriazko gertakarien gaineko informazioa bilduko lukeen dokumentu-funts bat sortzea.

Urratsik egin al da funts hori sortzeko? Nola kudeatuko da aurrekontu-partida hori?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen Plan Zuzendari berriari buruzkoa.

*MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen Plan Zuzendari berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

– Noiz aurkeztuko duzue Nafarroako Foru Komunitatearen Plan Zuzendari berria?

• Plan Zuzendari berrian: Orain arte entitateentzat erabiltzen zen baremoa aldatuko al da –%70 entitatea eta %30 proposamena–, halako moduz non banaketa %50 eta % 50ekoa izanen baita, proiektuetarako sarbidea izan dezaten nazioarteko erakundeei atxiki gabeko gobernuz kanpoko erakundeek?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

# Galdera, energia-politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko entitate publiko bat sortzeari eta Nafarroarako Energia-plana berrikusteari buruzkoa.

*CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, energia-politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko entitate publiko bat sortzeari eta Nafarroarako Energia-plana berrikusteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aldaketaren Gobernuari sostengua ematen dioten lau alderdiak programa-akordioan konprometitu ziren entitate publiko bat sortzera energia-politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko, bere gain hartuko lituzkeena, besteak beste, orain arte CRANAk zeuzkan eginkizunak; halaber, Nafarroarako Energia-plana berrikustera 2015era bitarteko epean, energia berriztagarrien garapenaren aldeko eta energiaren erabilera arrazoizkoaren aldeko apustua egite aldera.

Berrikuspen horretan erabaki zen xeheki aztertzea elektrizitate-hornikuntzako sarea, egin beharreko jarduketak eta horien plangintza eta betearazpena. Bai eta energia-iturri ezberdinei dagokienez Nafarroan potentzialki dauden baliabideen inbentario bat egitea ere.

Zertan dira entitate publiko hori sortzeko zuzemenak? Zertan da elektrizitate-hornikuntzako sarearen gaineko azterlan xehakatua? Zertan da dauden baliabideen inbentarioa?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

## Galdera, seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeriaren kasuei aurre egiteko eta horiek behar bezala artatzeko jarduketa-protokoloari buruzkoa.

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeriaren kasuei aurre egiteko eta horiek behar bezala artatzeko jarduketa-protokoloari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016ko martxoaren 8an –orain dela urtebete baino gehiago–, Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen, Gobernua premiatzen zuena jarduketa-protokolo bat taxutu zezan seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeriaren kasuei aurre egiteko eta horiek behar bezala artatzeko.

Nafarroako Gobernuak noiz beteko du mozio hori?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## Galdera, Hezkuntza Departamentuaren efizientziari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren efizientziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Benetan uste duzu Hezkuntza Departamentuko oraingo taldeak lehenagokoak baino efizientzia handiagoa bermatu duela?

– Benetan uste duzu zorroztasun eta segurtasun juridiko handiagoak daudela? Hala diot horrela defendatu zirelako zenbait kargu-kentze.

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, beka-deialdietan egindako aldaketei buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, beka-deialdietan egindako aldaketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zure ustez, beken deialdian behartutako aldaketekin bermatu egiten al da aukera berdintasunaren printzipioa, bereziki errenta txikiko familietako ikasleentzat?

– Zein da iragarri zenuen foru lege proiektu baten bidez ezarriko den sistema berritzaile eta bermatzaileagoa (zuk halaxe kalifikatu baitzenuen)?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, irakasle-lanaren aitortza egiteko kanpaina bat egin beharrari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, irakasle-lanaren aitortza egiteko kanpaina bat egin beharrari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Beharrezkotzat jotzen al duzu kanpaina bat egitea, UPNren ekimenez Parlamentu honek onetsi zuen bezala, irakasle-lanaren aitortza egiteko?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako baremoa bertan behera uzteari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako baremoa bertan behera uzteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nolakoa iruditzen zaizu Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetako baremoa bertan behera uztean sorturiko egoera? Nola konponduko duzu?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

---

## Galdera, Ingelesez Ikasteko Programan irakasten duten irakasleen hizkuntza-mailari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, Ingelesez Ikasteko Programan irakasten duten irakasleen hizkuntza-mailari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Zer neurri hartuko duzu Ingelesez Ikasteko Programan irakasten duten ikastetxeetako irakasleen C1 hizkuntza-maila bermatzeko?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, NUPen urte anitzeko finantzaketa-planari, NUPek Tuteran duen hezkuntza-eskaintzari eta Irakasle-ikasketen gradua ingelesez jartzeko aukerari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, NUPen urte anitzeko finantzaketa-planari, NUPek Tuteran duen hezkuntza-eskaintzari eta Irakasle-ikasketen gradua ingelesez jartzeko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zein da Departamentuak hitzartutako zenbatekoa,

NUPen urte anitzeko finantzaketa planari dagokionez?

– Zer neurri hartuko duzu Tuteran NUPen hezkuntza-eskaintza handitzeko?

– NUPen campus zentralean Irakasle-ikasketen gradua ingelesez jartzeko aukeraren alde al zaude?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, aniztasunaren arretari, Lanbide Heziketari eta Fernando Remacha musika kontserbatorioaren finantzaketari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, aniztasunaren arretari, Lanbide Heziketari eta Fernando Remacha musika kontserbatorioaren finantzaketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zer neurri zehatz proposatuko duzu aniztasunaren arreta bermatzeko?

– Zer neurri zehatz hartuko duzu arreta hobea emateko ikasle etorkin eta eskolatze berantiarreko ikasle asko dituzten ikastetxeei?

– LHn eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua handituko al duzu, Parlamentu honek UPNren ekimenez eskatu zuen bezala?

– LHri dagokionez, Erriberan noiz handituko duzu modu egokian erdi eta goi mailako graduen eskaintza, Parlamentu honek eskatu zuen bezala?

– Eta Erriberari dagokionez, noizko egonen da prest lankidetza-hitzarmena Tuterako Udalarekin, Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, eskola-aurreinskripzioko kanpainari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, eskola-aurreinskripzioko kanpainari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Eskola-aurreinskripzioko kanpainarako jarraibideak aldatuko al dituzu, D eredua gainerako hezkuntza-eskaintzaren gainetik ez sustatzeko?

– Egokitzat jotzen al duzu azken informazio-kanpaina?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, hezkuntza-itunei buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntza-itunei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza itunak errespetatu eta mantenduko al dituzu?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

---

## Galdera, hezkuntzako lan-eskaintza publikoei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikaspostuen gaineko oraintsuko epaiei eta ikastetxeetako irakasleen kontratuen iraupenari nahiz bertaratzeari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntzako lan-eskaintza publikoei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikaspostuen gaineko oraintsuko epaiei eta ikastetxeetako irakasleen kontratuen iraupenari nahiz bertaratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zer aurreikuspen duzu lan-eskaintza publikoei dagokienez?

– Zer jarrera izanen duzu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikaspostuak direla-eta mahaiaren gainean duzun epaiaren aurrean? Bidenabar: gaur jakin dugu beste epai batek deuseztatu egin duela 42/2016 Foru Dekretua, ikastetxeetako irakasleen eta laguntzaileen kontratuen gehieneko iraupena zehazten duena. Zer diozu horri buruz?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, hezkuntza-kalitatea hobetzeko ituna berriro egiteari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntza-kalitatea hobetzeko ituna berriro egiteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zer neurri hartu eta zer proposamen eginen dituzu bere garaian UPNk irakasleen ordezkari sindikalekin sinatutako Hezkuntza-kalitatea hobetzeko Ituna berriro egiteko?

– Hezkuntza arloko itun sozial eta politikoa, bai ala ez?

– Babestuko al duzu nazio mailako itun bat?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

---

# Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan asteko ingeles-orduen kopurua arautzen duen foru aginduari eta Programan sartzeko eta handik irteteko xedapenari buruzkoa.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, Ingelesez Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan asteko ingeles-orduen kopurua arautzen duen foru aginduari eta Programan sartzeko eta handik irteteko xedapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, eta ikusirik Hezkuntzako kontseilariak maiatzeko 3ko Hezkuntza Batzordean ez zuela zehaztu eta ez zuela erantzun, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Ingelesez Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan asteko ingeles-orduen kopurua arautzen duen foru agindua eta Programan sartu eta handik irteteari buruzko xedapena mantenduko al dituzu?

Corellan, 2017ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa.

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Oraintsu aurkeztu da 2017tik 2020ra bitarteko Nafarroaren Nazioartekotze Planaren zirriborroa. Iruñean eta Tuteran 2017ko maiatzaren 3an egin zen aurkezpen-ekitaldian iragarri zenez, Nafarroako Gobernuaren bulego bat irekiko da Madrilen.

Nafarroako Gobernuak zer baldintzatan ireki nahi du (espazioa, langileak, epeak eta materiala) Espainiako hiriburuko bulego edo ordezkaritza hori?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

---

## Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa.

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Oraintsu aurkeztu da 2017tik 2020ra bitarteko Nafarroaren Nazioartekotze Planaren zirriborroa, eta horren 4.6 Estrategia puntuan adierazten denaren arabera, Nazioarteko Harremanen Gradua sortuko da Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Zer txosten edo datutan oinarrituta sortuko da Nazioarteko Harremanen gradu hori?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

---

## Galdera, aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”.

*OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko honako galdera hau: aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”. Galdera 2017ko martxoaren 7ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa.

*OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa. Galdera 2017ko maiatzaren 3ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko ekipoak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruzkoa.

*OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko ekipoak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruzkoa. Galdera 2017ko maiatzaren 3ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## Galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa.

*OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera 2017ko maiatzaren 3ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## Galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa.

*ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa. Galdera 2017ko apirilaren 4ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Galdera, jakitekoa ea zenbateraino garatu eta bete den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko.

*GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko honako galdera hau: jakitekoa ea zenbateraino garatu eta bete den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko. Galdera 2017ko martxoaren 31ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Galdera, emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriei buruzkoa.

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera emakumeek pairatzen duten indarkeria ekidite aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako zeharkako neurriei buruzkoa zen, eta 2017ko martxoaren 17ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko lau lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa (horietako baterako euskaraz jakin behar da).

**Akats zuzenketa**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2017ko apirilaren 10eko Ebazpenaren bidez (82. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 28koan, argitaratua), Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko lau lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia (horietako baterako euskaraz jakin behar da) onetsi zen.

Deialdiaren testuan akatsa dagoela ikusirik, bidezkoa da hori zuzentzea. Beraz, Lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

**1.** Deialdiaren testua zuzentzea haren 6.2.a) oinarrian eta "Deialdiaren programa" izeneko 2. eranskineko 41. gaian; honela:

Honela dioen tokian:

"271/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duena aurrekontu egituraren arloan".

Honakoa behar du:

"234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena".

**2.** Zuzenketa hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950